

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ KRONIKA

Eskola liburuak aukeran, Kronikan

Azoka berezia jarriko du martxan Kronikak, eskola liburuak merke lortu ahal izateko.

IKASTURTE berria hastearrekin batera, eskolako material asko bildu behar izaten da, aurreneko eskola egunerako prest egoteko. Askotan, gastua handia izaten da, ordea, eta horri begira, azoka berezia jarri nahi du martxan Kronikak: eskola liburuaz azoka.

Helburua hirukoitza da: batetik, etxean alferrik gordeta dauzkagun eta erabiltzen ez ditugun eskola liburuak etxetik atera eta berrehabiltzeko aukera ematea; bestetik, behar ditugun eskola liburuak merke-merke lortzea; eta azkenik, Kronikari laguntza ematea.

Bilketa, datorren astetik
Aurrena, eskola liburuak jasotzeko epea irekiko da. Hain zuzen, hilaren 12tik 23ra bitartean jasoko dira liburuak, Larramendi kaleko Kronikaren bulegoan.

Hernani eta Astigarragako ikastetxeetan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan edota Batxilergoan erabilitako eskola liburuak ekarri ahal izango dira. Liburuak entregatzen dituenaren datuak jasoko dira azoka martxan jartzean liburuak salduz gero, harekin harremanetan jarri eta dago-kiona ordaintzeko. Saldu ezean, liburuak bueltan jasotzeko epea jarriko da, nahi duenak aukera izan dezan.

Azoka, hilaren bukaeran
Bakoitzak behar duen libururik bildu ote den ikusteko, berriz, Kronikatik pasatzeko aukera izango da abuztuaren 26tik irailaren 6ra arte. Nahi duenak erosi ahal izango ditu liburuak. Saldutatik lortutako diruaren zati bat Kronika laguntzeko erabiliko da. ■

■ HERNANI UDAKO ZINEMALDIA

Kapuścińskiren biografia oinarri, gaurko filmak

Potemkin Zinema Taldeak antolatutako udako zinemaldian, bigarren eta azken filma jarriko da gaur, 22:30etan Goiz Eguzkin, doan: 'Another Day Of Life'. Animaziokoa da, hainbat sari jasotakoa.

BIGARREN eta azken zinema gaua izango da gaurkoa, Potemkin Zinema Taldeak antolatutako udako zinemaldian. Goiz Eguzkiko parkean jarriko dute doan, gaur ere, filma, 22:30etan; oraingoan, *Another Day Of Life*, animaziokoa. Era berean, gaur ere, Goiz Eguzkiko tabernan afaldu ahal izango da.

Kapuściński, Angolan

Raúl de la Fuente eta Damian Nenowek zuzendutako pelikula hau Ryszard Kapuściński kazetari eta idazle poloniarren autobiografian dago oinarrituta, eta Angolak 1975ean Portugalgo kolonia izateari utzi zion garaian dago kokatua.

Hainbat sari jaso ditu, Goya Sarietan, Donostiako Zinemaldian, Platino Sarietan edota Europako Zine Sarietan. ■



Angolak Portugalgo kolonia izateari utzi izanak eragindako ondorioak kontatzen ditu filmak.

■ ASTIGARRAGA GARRAIO ZENTRO INTEGRALA

Bidegik esleitu ditu Garraio Zentrorako obrak

Inbertsioa 6,8 milioikoa izango da. Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako diputatuaren esanetan, «Bidegik bere gain hartuko ditu gastuak, osorik». Bigarren fasea urte bukaeran aterako da lizitaziora.

ZARKUMENDEGI zelaiaren bestaldean, AP-8ko 17.000 puntu kilometrikoan egingo da Garraio Zentro Integraleko plataforma, Behobiako noranzkora. 355 kamioientzako aparkalekua izango du, zerbitzu eraikin bat eta kanpoko aparkaleku bat, 39 ibilgailu arin edo kotxerentzat.

Plataforma hori egiteko obraren lehenengo fasea esleitu berri du Bidegiko Adminis-

trazio Kontseiluak: Altuna y Uria, Urbycolan, Mariezcurrena eta Zubieder enpresek osatzen duten enpresa batasunak egingo du. Denera, 6.831.737 euroko kostua izango du, eta 24 hilabeteko exekuzio epea.

Hala jakinarazi zuen uztaila bukaeran Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako diputatuaren esanetan, eta gehitu zuen: «Bidegik bere gain hartuko ditu gastuak, osorik».

Bigarren fasea, urte bukaeran
Obraren aurreneko zati honetan egingo dituzte lurra orekatu eta urbanizatu, eta sarrera eta AP-8ra sartzeko adarra eta trafikoa banatzeko errotonda, besteak beste.

Bigarren fasean, berriz, zerbitzuen eraikina eraiki eta itxitura eta zaintza sistema martxan jartzeko lanak egingo dira, eta 2019ko azken hiruhilekoan aterako dira lizitaziora.

Ondoren, Oartzungo eremua eraldatuko da, eta hau, 2020ko urtarrilean aterako da lizitaziora, aurreikuspenen arabera.

Guztiarekin EAEko aurreneko Garraio Zentro Integrala eraikiko da, estatuko haundiena. Garraiolarientzako atsedendekua eta aparkalekuaz gain, izango ditu jatetxe-kafetegia, supermerkatua, komunak eta dutxak, telebista aretoa, aisialdi eremua eta garbitegia. ■

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

MARISCOS HERNANI

Javier Juaristi
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20020 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Abuztuaren
10etik 25era (biak barne),
ateak itxiko ditugu.
26an bueltan izango gara.
ONDO PASA OPORRAK!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

GAUR Bero egingo du goizean, laino gubi agertuko da eta hegoaldeko haizea ibiliko da. Baina eguerdian aurrera haizea iparretik sartuko da. Ondorioz, freskatu eta lainotu egingo du. Euria egin dezake. **Min.20° / Max.31°**

BIHAR Asko freskaturiko du., Fronte baten eraginez, zerua lainotuta egongo da eta euria egingo du, kantauri isurialdean. Hegoaldean ez du hainbeste lainotuko. **Min.17° / Max.21°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI PALA



Edurne Osa eta Garbiñe Tijero hernaniarrek irabazi dute Goiburuko pala txapelketa.

Andoaingo txapela, Hernanira

Kristina eta Amaia 22 eta 13 irabazita irabazi dute Goiburuko pala txapelketako finala, hernaniarrek. Aurretik, bi partidu jokatu zituzten.

IGANDE eguerdian jokatu zituzten Goiburuko pala txapelketako finalak, auzo andoaindar horretako festen bueltan. Emakumezkoetan, bi hernaniar izan dira txapeldunak: Edurne Osa eta Garbiñe Tijero 22 eta 13 irabazi zuten Kristina eta Amaia aurrean.

Andoaindarren txapelaren buru bila, kanpora
Goiburu auzoko pala txapelke-

ta andoaindarrei zuzendutako izaten da. Mutiletan 32 bikotek hartu zuten parte, eta Loidi II eta Asier izan ziren garaile, Eskudero I eta Otermini 22 eta 15 irabazita.

Nesketan, ordea, ez zen nahikoa bikote, eta deialdia Villabonara zabaldu zen. Bertakoa da Edurne Osa hernaniarra, eta hark animatu zuen Garbiñe Tijero hernaniarra ere, parte hartzea.

«Nahiko erraz joan zen finala», aitortu du Tijerok. «Aurretik bi partidu ere jokatu genituen. Finalekoa polita izan zen, tanto politikak izan ziren». Jai giroan askotan teniseko pelotarekin jokatzen dela-eta, ohitura faltak eta denbora dezentez jokatu gabe egoteak eragingo ote zien pentsatu zuen, «baina gustora, oso ondo» sentitu zirela dio. Are gustorago, ondorengo herri bazkarian! ||

Argazkia: AURRI



Astigarragako Eragiyok abesbatza, Getariako kaleetan, Salbatoreetan.

ASTIGARRAGA ERAGIYOK ABESBATZA

Astigarragatik Getarira, ahotsari eraginez

Salbatore jaien bueltan gonbidatu dute getariarrek Astigarragako Eragiyok abesbatza, haienera. Pasa den asteburuan izan ziren bertan abeslariak, Udalak eta Elkano Arrantzaleen Kofradiak deituta. Udaletxeko plazan elkartu ziren, larunbat eguerdian, eta kalez kale ibili ziren jai-girorako haien hondar-alea jartzen. Besteak beste, abestu zituzten *Boga boga*, *Goizeko Izarra*, *Ilunabarra*, *Aurtxo seaskan*, *San Juan zortzikoa*, eta beste hainbat doinu klasiko. Beste behin, «euskal musika jendartera ateratzea» izan zuten helburu, eta eskerrak eman dizkiete gerturatutako guztiei, «harrera beroagatik». ||

ASTIGARRAGA DIRULAGUNTZAK

Bi diru-laguntza deialdi irailera arte, hezkuntzan

Haurreskoletako haurrei eta ikastetxera joateko garraioa behar dutenei zuzendutakoak dira.

UDALAK bi diru-laguntza deialdi jarri ditu martxan hezkuntza arloari lotuta, eta batean zein bestean, irailaren 30era arte egin daitezke eskaerak. Biak, pasa den ikasturteari lotutakoak dira.

Batetik, 2018-2019 ikasturtean haurreskola batean ibilitako haurren familiak lagunduko dira diruz, eta bestetik, 2018-2019 ikasturtean DBH edota HHI-EPA Astigarragan ikasteko aukerarik ez duten ikasleak, ikastetxe publiko batera egindako bidaien gastuekin laguntzeko.

Irailaren 30era arteko epea
Laguntzak eskatzeko epea irailaren 30era artekoa da, bi kasuetan. Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira eskaera egiteko dokumentu guztiak. Abuztuaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira bi laguntzetarako deialdiak, eta

bertan zehazten dira baldintza guztiak eta eskaera egiteko moduak.

Haurreskoletako ikasleen kasuan, Haurreskolak Partzurgokoa den haurreskola batean matrikulatutako haurren familiak lagunduko dira. Bi haur edo gehiago matrikulatuta edukiz gero, bigarren haurren matrikularen %50 ordainduko zaio, eta hirugarren edo haur gehiagoren kasuan, %100. Familia ugari dagokienez, berriz, %25.

Garraioaren gastuak ordaintzeko laguntzari dagokionez, DBH eta HHI-EPAko ikasleek herrian ikasteko aukerarik ez, eta kanpoko ikastetxe publiko batera egin beharreko bidaiak ordaintzen laguntzeko izango da. Asistentzia agiriaren arabera, eskola egun bakoitzeko 1,90 euro emango zaizkio ikasleari, baina ikasleko gehienez 100 euroko laguntza emango da. ||

HERNANI BOXEOA

Lejarraga boxeolaria ikusteko, autobusa

Berriro ere, Kerman Lejarraga boxeolariaren borroka ikusteko autobusa antolatzen hasi dira hainbat herritar. Irailaren 28an Bilbao Arenan izango da Lejarraga, Europako welter pisuko Txapelketan. Heraniko zaleek antolatuta, Atsegindegitik aterako da autobusa egun horretan, 16:00etan. Izena emateko, whatsapp bidez idatzi behar da 665 752 072 (Iñigo) telefonora, eta 18 euro ordaindu beharko dira. Txapelketarako sarrerrak, berriz, ticket.kutxabank.es webgunean erosi behar dira. Borrokak 19:00etan hasiko dira, eta denera, zazpi izango dira. ||

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Enkartelada gaur, bigarren ostiralean

Heraniko euskal preso eta iheslarien senide eta lagunek dei egin dute gaur ere, enkarteladan parte hartzeko. Hileko bigarren ostiraleko bezala, 20:00etan abiatuko dira Plazatik, «preso dauden gure senideen oinarritutako eskubideak errespetatu daitezken eskatzeko. Bada garaia mendekuan oinarritutako espetze politika honekin bukatzeko». ||

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako.

Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana

Heranin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira.

Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)